

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskadiko Kirol Portuak Zuzenbide
Pribatuko Erakunde Publikoa**

**Ente Público de Derecho Privado
Euskadiko Kirol Portuak**

2020





AURKIBIDEA/ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. IRITZIA.....	9
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA	9
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA.....	9
III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK.....	10
III.2 LANGILERIA	10
III.3 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK KONTRATATZEA.....	10
III.4 BESTE ALDERDI BATZUK	11
IV. URTEKO KONTUAK.....	12
ERANSKINAK	15
A.1 Araudi ezargarria	15
A.2 Aktiboen eta pasiboen lagapen globala	15
A.3 Aktibo ez korrontea.....	16
A.4 Jasotako dirulaguntzak	17
A.5 Negozio zifraren zenbateko garbia	17
A.6 Langileria.....	18
A.7 Ustiapeneko beste gastu batzuk	19
A.8 Kontratuen analisia.....	19



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS	21
I. INTRODUCCIÓN.....	23
II. OPINIÓN.....	25
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD	25
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES	25
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	26
III.1 CONTABILIDAD Y PRESUPUESTOS	26
III.2 PERSONAL	26
III.3 CONTRATACIÓN DE BIENES Y SERVICIOS	26
III.4 OTROS ASPECTOS	27
IV. CUENTAS ANUALES	28
ANEXOS	31
A.1 Normativa aplicable	31
A.2 Cesión global de activos y pasivos.....	31
A.3 Activo no corriente	32
A.4 Subvenciones recibidas	33
A.5 Importe neto de la cifra de negocios.....	33
A.6 Personal.....	34
A.7 Otros gastos de explotación.....	35
A.8 Análisis de contratos.....	35

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 26a
Vitoria-Gasteiz, a 26 de mayo de 2022



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

2/2018 Legea	2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena.
59/2020 Dekretua	59/2020 Dekretua, maiatzaren 12koa, zeinaren bidez «Euskadiko Kirol Portuak» erakundeari atxikitzen baitzaizkio bere eginkizunak garatzeko behar dituen baliabideak.
AKBP	Administrazioko Baldintza Berezien Plegua.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EAEHONALTB	1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, 1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri-ogasuntza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.
EJ	Eusko Jaurlaritza.
EKP	Euskadiko Kirol Portuak.
EKPSA	Euskadiko Kirol Portua SA.
LZ	Lanpostuen zerrenda.
SPKL	9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, 1/1988 Legeak agindutakoari eta Epaitegiaren Osoko Bilkurak Lanerako plangintzan onartutakoari jarraikiz, Euskadiko Kirol Portuak (aurrerantzean EKP) zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren 2020ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu, bi pertsona juridikoren jarduerari dagokiona: Euskadiko Kirol Portua SA (aurrerantzean EKPSA) eta EKP.

Fiskalizazio-lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezkotasuna: ezargarria den arautegia bete dela egiaztatzea aurrekontu, langileria eta ondasun eta zerbitzuko kontratuetan.
- Kontabilitatea: aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea. Gure lana kanpoko enpresa batek gauzatutako auditoretzako txostena aztertzea izan da eta horretarako, egoki iritzitako proba osagarriak eta auditoretzako beste zenbait prozedura bideratu ditugu.

Lanaren zabalak ez du gastuaren efikaziari eta efizientziari buruzko azterlan berariazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi dela ere, fiskalizazioan zehar sortu diren akatsak Txosten honetako III. idazpuruan daude jasoak.

EKP ekainaren 28ko 2/2018 Legeak sortu zuen eta agintzen du jarduerari ekin ostean EKPSA desegin eta likidatuko dela eta berebat, Zumaiako Kirol Portua SA ere desegin eta likidatuko dela.

58/2020 Dekretuak, maiatzaren 12koak, EKPren estatutuak onartzen ditu eta jarduerari 2020ko ekainaren 1ean ekingo diola ebazten du.

2020ko abenduaren 22an, EKPSAn EAEren Administrazio Orokorrak (akziodun bakarra) zituen akzio guztiak EKPri eskualdatu zitzaizkion, eta 2020ko abenduaren 29an, EKPren aldeko aktiboaren eta pasiboaren lagapen globala eskrituran jaso zen; horren ondorioz, ondare osoa osotasunean eta oinordetza unibertsalaren bidez transmititzen da, eta, era berean, EKPk eskubide eta betebeharrak guztiak subrogatzen ditu.

Abenduaren 29ko 288/2020 Dekretuak EKPSA azkentzea baimentzen du, eta 2021eko martxoaren 22an azkentzea Arabako Merkataritza Erregistroan erregistratzen da.

Hona hemen EKPren helburua:

- Jaurlaritzak esleitzen dizkion edo emakidadun gisa kudeaketa bere gain hartua duen nautika- eta aisialdi-erabilerako portuen eta horiei lotutako erabilera-eremuen kudeaketa osoa.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrean portuen arloan eskumena duen sailarekin lankidetzat teknikoan aritzea, nautika- eta aisialdi-erabilerako portuak eta horiekin lotutako erabilera-eremuak planifikatu, sustatu, garatu eta programatzeko.



- Gobernuak agindutako portuko azpiegiturak eta instalazioak eraikitzea, bai eta azpiegitura berri horiek zaindu, kudeatu eta administratzea ere, zuzenean edo zuzenbide publiko edo pribatuko beste erakunde baten bidez eta edozein negozio juridikoren bidez.
- Gobernuak esleitutako portuetan portu-zerbitzuak ematea, objektibotasunaren, gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatuz.
- Europar Batasunaren eremuan helburu berak dituzten erakundeekin lankidetzan aritzea.

EKP portuen arloan eskumena duen sailari atxikita dago, gaur egun Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila denari.

59/2020 Dekretuak EKPri kirol-portuaren zerbitzu publikoaren kudeaketa esleitzen dio honako portu hauetan: Hondarribiko kirol-portua, Hondarribiko Molla kirol-dartsena, Donostiako kirol-dartsena, Orioko kirol-portua, Getariako kirol-dartsena, Debako kirol-dartsena, Mutrikuko kirol-portua, Mundakako kirol-portua, Bermeoko kirol-dartsena, Bermeoko kirol-dartsena, Armintzako kirol-portua, Plentziako kirol-portua eta Zumaiako portua.

59/2020 Dekretuaren arabera, esleipen horrek berekin dakar horietan kirol-portuetako zerbitzu publikoari atxikitako EAeko Administrazioaren titulartasuneko ondasun eta eskubideak atxikitzea.

Zumaiako portua Zumaiko Kirol Portua SA sozietateak kudeatzen du. Sozietate horretan Eusko Jaurlaritzak (% 51) eta Zumaiako Udalak (% 49) parte hartzen dute, eta Eusko Jaurlaritzak 1997an 30 urterako administrazio-emakida eman zion, kirol-portua eraiki eta ustiatzeko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

KONTRATAZIOA (ikus A.8)

1. 2020ko ekitaldian zehar 815.246 euroren gastua egin da erregaien horniduran, 95.795 euro aseguruetan, 58.465 euro lege-aholkularitzan eta 47.209 euro hornidura elektrikoan, hori guztia dagozkion kontratazio-prozedurak izapidetu gabe; izan ere, zenbatekoa aintzat hartuta, erregaien horniduraren kasuan, erregulazio harmonizatuaren mendeko kontratu irekia izapidetu behar zatekeen eta gainerako kasuetan, ireki sinplifikatuak.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan zehaztutako ez-betetzea alde batera, EKPk zuzentasunez bete du 2020ko ekitaldian ekonomia eta finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

1. EKPk ez du EAEko Administrazio Orokorretik jasotako ondasun eta eskubideen zerrenda balioetsirik, ez eta horiei egotz dakiekeen balio gauzagarri garbirik ere. Honenbestez, ezin zehaztu dezakegu kirol-instalazio horiek kontabilitatean erregistratzeak urteko kontuetan izan lezakeen eragina.

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoan azaldutako ez-betetzea alde batera, EKPre 2020ko ekitaldiko Urteko Kontuek alderdi esanguratsu guztietan erakusten dute 2020ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, araudian jasotako kontularitzako printzipioen eta irizpideen arabera.

III. BARNE KONTROLEKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan jasotzen dira jarduera ekonomikoa eta finantzarioa arautzen duten printzipioak betetzea nabarmen eragiten ez duten akatsak eta kudeaketa hobetzeko agerian jartzen diren prozedura-alderdiak.

III.1 KONTABILITATEA ETA AURREKONTUAK

- EKPren aurrekontuaren likidazioak ez du barne hartzen etorkizuneko konpromisoen egoera-orria, geroko ekitaldietarako konprometitutako gastuei lotutako finantzaketaren jarraipena eta kontrola egitea ahalbidetzen duena.

III.2 LANGILERIA

- EKPk kanpoko enpresa baten zerbitzuak kontratatu ditu aldi baterako kontratazio baten hautaketa-prozesua gauzatzeko. Kontratututako enpresei prozesu osoaren dokumentazioa gordetzeko eskatzea gomendatzen da.
- 2020ko abenduaren 31n, 2016an sinatutako egitekoak metatzeagatiko aldi baterako lan-kontratu bati eutsi zaio, eta Langileen Estatutuan ezarritako aldi baterako kontratazio-denbora gainditu da.

III.3 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA (ikus A.8)

- Hornidurako kontratu modura kalifikatutako kontratu bat (2. espedientea) prozedura ireki sinplifikatu bidez lizitatu da prozedura ireki arruntaren bidez lizitatu beharrean.
- Gomendagarria da AKBPN prezio-irizpiderako erabilitako formulak (1. espedientea) ez dezala murriztu lizitazioaren prezioa berdintzen duten eskaintzei puntuak ematean hasieran aurreikusitako haztapena.
- Eredu gisa erabiltzen den AKBPk enpresa sortu berriei dagokienez kaudimena justifikatuko duen proposamen bat eduki beharko luke, kontratuen AKBPetan jasoko direla bermatzeko (2. espedientea).
- Balio-judizio baten arabera kuantifikatu beharreko irizpideen balorazioa argi eta garbi justifikatu behar da balorazio-txosten teknikoan (2. espedientea).
- Kontratuari aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa esleipen-ebazpenetan jaso behar da (1. espedientea).
- Garrantzitsua da kontratazio-prozesuaren faseetako epeak betetzen ari direla kontrolatzea eta horien jarraipena egitea; izan ere, zuinketa egiaztatze eta obrak hasteko akta egin eta 19 egunera onartu zen segurtasun- eta osasun-plana, eta obra-amaierako ziurtagiria obrak jasotzeko akta baino hilabete lehenago egin zen (1. espedientea); era berean, milioi bat euroan esleitutako bi kontratuetan (1. eta 2. espedienteak), harrera-akta kontratuetan zehaztutako epea igaro ondoren gauzatu da.



Beste alderdi batzuk

- 2020ko ekitaldian zehar, telekomunikazio-zerbitzua, garbiketa-zerbitzua eta autoak alokatzeko zerbitzua kontratatu dira, guztira 72.874 euroan, eta ez dira izapidetu nahitaezko kontratazio-prozedurak, zenbatekoa aintzat hartuta prozedura sinplifikatu laburtuak izan zitezkeenak.
- 2020ko ekitaldian zehar izaera bertsuko ondasun eta zerbitzu erosketak gauzatu dira, guztira 117.368 eurorenak; gure iritzira, aztertu egin beharko lirateke eta homologatu daitezkeen hornidurak eta aurreikus daitezkeen zerbitzuak identifikatu, hartara kontratazioa prozedura bakar batean egin ahal izateko.
- Kontratu txikiak ez dira inskribatu EAeko Kontratuen Erregistroan, eta horiei buruzko informazioa ez da Kontratatzailearen Profilean argitaratu.

III.4 BESTE ALDERDI BATZUK

- EKPren estatutuak onartzen dituen maiatzaren 12ko 58/2020 Dekretuak jarduera 2020ko ekainaren 1erako hasia aurreikusten zuen arren, 2020ko abenduaren 29ra arte ez zen eskrituran jaso aktiboen eta pasiboen lagapen globala; horren ondorioz, erakundeari bere eginkizunak betetzeko behar dituen giza baliabideak eta baliabide materialak atxikiko zaizkio. Hori dela eta, Erakundearen jardueren hasiera data horretara arte atzeratu da.
- Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea zuzen betetzeko, EKPk bere webguneko gardentasunari buruzko edukia gaurkotu beharko luke, besteak beste, Zuzenbide Pribatuko Erakunde Publikoari ezargarria zaion araudiari eta urteko kontuei publikotasuna emateko
- 2020an guztira 694.599 euro ordaindu dira (2020ko ekitaldiko ordainketa guztien % 16), merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriei buruzko araudiak finkatzen duen 30 eguneko gehieneko epea gaindituta. Gainera, 2020ko abenduaren 31n ordaintzeke dagoen saldotik 133.890 euroren zenbatekoak (saldo osoaren gainean % 13) 30 egunetik gorako antzinasuna du.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK

BALANTZEA 2020KO ABENDUAREN 31N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2020	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSKINA	2020
AKTIBO EZ KORRONTEA		10.168	ONDARE GARBIA		20.252
Ibilgetu ukiezina.....	A.3	34	Funts propioak.....		16.917
Ibilgetu materiala.....	A.3	6.093	Funts soziala.....		16.131
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.3	4.041	Erreserbak.....		149
			Ekitaldiko emaitza.....		637
			Jasot. dirulag., dohaintz. eta leg.	A.4	3.335
AKTIBO KORRONTEA		14.435	PASIBO EZ-KORRONTEA		904
Izakinak.....		48	E/luzeko zorrak.....		70
Merkat zordunak eta bestel. knt kobratz.....		150	Gerorat. zergarengatiko pasiboak.....	A.4	834
Aldizkakotzeak e/lab.....		41	PASIBO KORRONTEA		3.447
Eskud. eta beste aktibo likido baliok. batz.		14.196	Zorrak epe lab.		3.212
			Dirulag. bihur daitezkeen zorrak.....	A.4	2.311
			Ibilgetuaren hornitzaileak.....		900
			Jasotako bermeak.....		1
			Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk .		235
AKTIBOA, GUZTIRA		24.603	ONDARE GARB. & PASIB.GUZT.		24.603

2020KO EKITALDIKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	ERANSKINA	2020
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	A.5	4.457
Hornidurak.....	(*)	(848)
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....		9
Pertsonaleko gastuak.....	A.6	(462)
Ustiapeneko beste gastu batzuk.....	A.7	(2.283)
Ibilgetua amortizatzea.....	A.3	(707)
Ibilgetu ez finantzarioko dirulaguntzak egozte eta beste.....	A.4	343
Beste emaitza batzuk.....		158
USTIAPENAREN EMAITZA		667
EMAITZA FINANTZARIOA		-
EMAITZA ZERGA AURRETIK		667
Mozkinen gaineko zerga.....		(30)
EKITALDIKO EMAITZA		637

(*) Kirol-portuetako gasolina-zerbitzuguneetarako erregaia.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2020KO EKITALDIKO ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA:

A) SARRERA ETA GASTU AITORTUEN EGOERA	Euroak milakotan
	2020
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	637
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrerak eta gastuak.....	773
Galeren eta irabazien kontura transferentziak guztira.....	(275)
DIRU-SARRERA ETA GASTU AITORTUAK GUZTIRA	1.135

B) ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

	FUNTS		ERRESERBAK	JASOT. DIRUL., EKIT. DOHAINT. ETA		GUZTIRA
	ERANSK.	SOZIALA		EMAITZA	LEGATUAK	
HASIERAKO SALDOA, 2020. URTEA	-	-	-	-	-	-
Aitortutako sarrerak eta gastuak.....	-	-	-	637	498	1.135
Bazkide edo jabeekiko eragiketak.....	A.2	16.131	149	-	2.837	19.117
2020KO URTEAREN AZKEN SALDOA		16.131	149	637	3.335	20.252

2020ko ekitaldiko ESKUDIRUZKO FLUXUEN EGOERA	Euroak milakotan
	2020
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	667
Emaitzari doikuntzak.....	342
Kapital arruntean aldaketak.....	1.324
Ustiapen jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk.....	(30)
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	2.303
Inbertsioen ordainketak.....	(966)
INBERTSIO JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(966)
Ondareko eragiketengatiko kobr. eta ordainketak.....	966
FINANTZAKETA JARDUERETAKO ESKUDIRUZKO FLUXUAK	966
ESKUDIRUEN EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	2.303
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	11.893
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran.....	14.196

USTIAPEN AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2020KO ABENDUAREN 31N Euroak milakotan

KONTZEPTUA	AURREKONTUA			
	HASIER./AMAIER.	GAUZATUA	ALDEA	%
GASTUAK				
Pertsonaleko gastuak	512	462	50	% 90
Funtzionamendu-gastuak.....	3.649	3.164	485	% 87
Gastu finantzarioak.....	7	-	7	-
Ustiapen jardueren eskudiruzko fluxu positiboak.....	51	2.303	(2.252)	% 4.516
GASTUAK, GUZTIRA	4.219	5.929	(1.710)	% 141
DIRU-SARR.				
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	3.861	4.457	(596)	% 115
Bestelako ustiaketa-sarrerak.....	357	161	196	% 45
Transferentziak eta ustiap. dirulaguntzak	-	9	(9)	-
Sarrera finantzarioak.....	1	-	1	-
Ordaintz. ktu. igoera eta kobratz. knt. jaitsiera garbi.....	-	1.302	(1.302)	-
SARRERAK, GUZTIRA	4.219	5.929	(1.710)	% 141

KAPITAL AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA 2020KO ABENDUAREN 31N Euroak milakotan

KONTZEPTUA	AURREKONTUA			
	HASIER./AMAIER.	GAUZATUA	ALDEA	%
INBERTSIOAK				
Inbertsio ukiezin, material, ibilgetu eta besteren igoera (Ibilgetu materiala).....	4.100	966	3.134	% 24
Eskudiru edo baliokideen igoera garbia.....	-	2.303	(2.303)	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	4.100	3.269	831	% 80
FINANTZAKETA				
Ustiapen jardueren eskudiruzko fluxu positiboak.....	51	2.303	(2.252)	% 4.516
Jasotzeko transferentziak, dirulag., dohaintz. eta legatuak	2.300	966	1.334	% 42
Eskudiru edo baliokideen murrizketa garbia	1.749	-	1.749	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	4.100	3.269	831	% 80

ERANSKINAK

A.1 ARAUDI EZARGARRIA

EKPSA Sozietate Publikoa eta EKP Zuzenbide Pribatuko Erakunde, Publikoa Euskadiko Ogasun Nagusiaren berezko gaiei dagokienez, berariaz aplikagarri zaizkien xedapenek arautzen dituzte eta horiei aurka egiten ez dietenetan, zuzenbide pribatuak arautzen ditu (EAEHONALTBren 22. eta 18. artikulua, hurrenez hurren).

EKPk zuzenbide zibileko, merkataritza-zuzenbideko eta lan-zuzenbideko arauen mende jartzen du, oro har, bere jarduera kanpo-harremanetan, administrazio-ahalak baliatzea dakarten egintzetan izan ezik, horietan administrazio-zuzenbidearen mende egongo baita. Barne-harremanetan eta antolaketa-harremanetan, aplikagarria den izaera publikoko araudiaren mende egongo da.

Alabaina, EKPSA botere esleitzaitzat hartzen da, SPKLren 3.3 artikulua arabera. Kontratuak, 26. artikulua arabera, pribatuak dira, eta haien prestaketa, esleipena, ondorioak eta azkentzea SPKLren 317. artikulutik 320.era bitartekoetan xedatutakoaren arabera arautuko dira.

Langileak kontratatzeari dagokionez, bai EKPSA bai EKP Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 55. artikuluan ezarritako printzipioen mende daude.

A.2 AKTIBOEN ETA PASIBOEN LAGAPEN GLOBALA

Aktibo eta pasiboen lagapenak 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu kontabilitate-ondorioak, Kontabilitate Plan Orokorren arabera.

Lagapenean jasotako aktibo eta pasiboen balioak bat datoz EKPSAk data horretan zituen kontabilitate-balio garbiekin; 2019ko abenduaren 31n auditatutako urteko kontuen arabera, hona hemen horiek:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan					
AKTIBOA	ERANSKINA	20.1.1	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	ERANSKINA	20.1.1
AKTIBO EZ KORRONTEA		9.909	ONDARE GARBIA		19.117
Ibilgetu ukiezina.....	A.3	41	Funts propioak.....		16.280
Ibilgetu materiala.....	A.3	5.580	Kapital.....		16.131
Ibilgetuko inbertsioak.....	A.3	4.288	Erreserbak		149
			Jasot. dirulag., dohaint. eta legat.	A.4	2.837
AKTIBO KORRONTEA		12.924	PASIBO EZ-KORRONTEA		778
Izakinak		81	E/luzeko zorrak		69
Merkat. zordunak eta kobr. bestel. knt		912	Gerorat. zergarengatiko pasiboak	A.4	709
Aldizkakotzeak e/lab.....		38			
Eskud. eta b. akt. likido baliokide batz.		11.893	PASIBO KORRONTEA		2.938
			Zorrak epe lab.		2.358
			Dirulag. bihurturri diren epe lab. zorrak...	A.4	2.062
			Ibilgetuaren hornitzaileak		295
			Jasotako bermeak.....		1
			Taldeko eta elkart. enpr. zorrak		67
			Merkat. hartzek. eta ordaint. bst knt b.....		513
AKTIBOA, GUZTIRA		22.833	ONDARE GARB. ETA PASIB. GUZT.		22.833

A.3 AKTIBO EZ-KORRONTEA

Hona hemen 2020ko ekitaldiko kontu-mugimenduak:

Euroak milakotan									
KONZEPOTUA	SALDOA 20.1.1EAN					SALDOA 20.12.31N			
	KOSTUA	AMORT. MET.	GARBIA	ALTAK	ESKUALD.	AMORT. ZUZKID.	KOSTUA	AMORT. MET.	GARBIA
Aplikazio informatikoak	92	(51)	41	-	-	(7)	92	(58)	34
IBILGETU UKIEZINA GUZTIRA	92	(51)	41	-	-	(7)	92	(58)	34
Eraikuntzak.....	5.043	(701)	4.342	122	142	(174)	5.307	(875)	4.432
Instalazio teknikoak eta beste	5.459	(4.381)	1.078	63	-	(279)	5.522	(4.660)	862
Abian dagoen ibilgetua.....	160	-	160	781	(142)	-	799	-	799
IBILGETU MATERIALA GUZTIRA	10.662	(5.082)	5.580	966	-	(453)	11.628	(5.535)	6.093
Eraikuntzak.....	7.445	(3.157)	4.288	-	-	(247)	7.445	(3.404)	4.041
IBILGETUKO INBERTSIOAK GUZTIRA	7.445	(3.157)	4.288	-	-	(247)	7.445	(3.404)	4.041
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	18.199	(8.290)	9.909	966	-	(707)	19.165	(8.997)	10.168

2020an Plentziako barneko kirol-portua eraberritzeko obra-kontratua esleitu da (ikus A.8), eta horren exekuzioa 727.819 euro izan da ekitaldian. Zenbateko hori obra amaitu arte abian dagoen ibilgetuan erregistratu da.

Bestalde, 2020an 141.781 euro transferitu dira abian dagoen ibilgetutik eraikuntzetara, Hondarribiko kirol-portuko Travelift handitzeko 2018an esleitutako obra-kontratua amaitu delako.

Ondasun higiezinetakoko inbertsioak Hondarribiko kirol-portuko merkataritza-guneko lokalei eta Getariako portuko tabernari dagozkie; biak alokatuta daude, eta 273.292 euroren diru-sarrerak sortu dituzte 2020an (ikus A.5).

A.4 JASOTAKO DIRULAGUNTZAK

Hona hemen kontu-mugimenduak 2020an:

	Euroak milakotan			
	JASOTAKO DIRULAG., DOHANTZAK ETA LEGATUAK	ZERGA GERORATUENG. PASIBOAK	DIRULAG. EMAITZET. EGOZTEA	ZOR DIRULAG. BIHURGARRIAK
SALDOA 20.1.1EAN	2.837	709	-	2.062
Gehikuntzak 2020.....	773	193	-	249
Emaitzetara egoztea 2020.....	(275)	(68)	343	-
20.12.31N SALDOA	3.335	834	343	2.311

2020ko ekitaldian EJtik dirulaguntzetan 1,2 milioi euro jaso dira inbertsioak finantzatzeko.

A.5 NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA

Galera eta irabazien kontuaren idazpuruen xehapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan
	ZENBAT.
EJren portuen kudeaketarako mandatuaren kanona	1.179
Kirol-ontzi eta laketontzientzako zerbitzua (amarralekua).....	1.480
Erregaiaren salmenta	1.025
Lokalen alokairua (ikus A.3)	273
Produktuen eta energiaren hornidura.....	99
Ontzitegiko zerbitzuak eta beste batzuk.....	401
GUZTIRA	4.457

EKPren jarduera hasi arte, EKPSAk biltzen zituen kirol-ontzientzako zerbitzuengatik eta energia-produktuen hornikuntzagatik diru-sarrerak, eta EJri eskualdatzen zizkion oso-oso-oso, EJren Kontseiluak 2016ko martxoaren 22ko Erabakiz onartutako diru-bilketa kudeatzeko mandatuak agintzen zuen bezala. Era berean, Eusko Jaurlaritzak EKPSari hiru hilean behingo kanon bat ordainduta portua kudeatzeko mandatu eman zion eta kontzeptu horrekin 1,2 milioi euro aitortu dira 2020an, lehenengo bi hiruhilekoei dagozkienak.

EKPk jarduerari hasiera eman zionetik, bi mandatuak ondoriorik gabe geratu ziren, eta EKPk bere izenean fakturatzen ditu portu-tasak; beraz, 2020an amarratze, ontzitegi eta bestelakoengatik eta energia-produktuen hornidurengatik aitortutako diru-sarrerak ekitaldiko bigarren seihilekoan sortutakoei dagozkie

A.6 LANGILERIA

Honako hauek dira pertsonaleko gastuak:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBAT.
Soldatak, lansariak eta antzekoak	351
Gizarte kargak	111
GUZTIRA	462

Langileen ordainsariak % 2 igo dira 2020an, 2019ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsari osoen aldean, EAeko 2020ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 27ko 13/2019 Legean ezarritakoari jarraikiz.

Hona hemen EKPko langileen xehetasunak 2020ko abenduaren 31n:

KONTZEPTUA	AURREK. PLANTILA	INTEGRAZIOA	ALTAK	31.12.20
Goi karguduna	1	(*)	1	1
Lan kontratuko langile finkoak	6	5	-	5
Aldi baterako lan kontr. langil.	-	1	1(**)	2
GUZTIRA	7	6	2	8

(*) EKPSAko zuzendaria 2020ko ekainaren 1ean kargugabetu zuten eta EKPko zuzendari izendatu 2020ko ekainaren 2an.

(**) Aldi baterako Lan Ezintasuneko egoera bat betetzeko.

2019ko abenduaren 31n, langileak EKPSAn kontratatuta zeuden. 2/2018 Legearen bigarren xedapen gehigarriaren arabera, EKPSAn lanean ziharduten eta legearen arabera EKP bere gain hartutako eginkizunak betetzen zituzten lan-kontratuko langileak erakunde horretako langile bihurtu ziren, lan-araudian aurreikusitako enpresaren ondorengotza-baliabidea aplikatuta. EKP langileei abuztuaren 1ean eman zien alta eta 2020ko 59/2020 Dekretuak eranskinean jasotzen du langileen LZ; langileek finkatutako eta eskuratutako lan-eskubide eta -betebeharrei eutsi diete.

59/2020 Dekretuak dio beharrak aztertu ondoren, EKPreko Administrazio Kontseiluak bere LZ propioa onartuko duela, eta horren ondoren, langileak lanpostuetan integratuko direla eta plazak behin betiko beteko direla, dagozkien prozeduren bidez. 2021eko irailaren 10ean, EHAAn argitaratu da 2021eko uztailaren 8an onartutako LPZ. Bertan, funtzionarioentzat gordetako 2 lanpostu eta lan-kontratudunentzat gordetako 52 lanpostu daude, eta horietatik 19 aldizkakoak dira.



A.7 USTIAPENENKO BESTE GASTU BATZUK

Galera eta irabazien kontuaren idazpuruen xehapena honakoa da:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	ZENBAT.	
Kanpoko zerbitzuak	2.247	
Errentamenduak eta kanonak	42	
Konponketak eta artapena	380	
Profesional independenteen zerbitzuak	1.153	
Marineltza, mantenimendua, kontrola eta administrazioa-portu-instalazioen harrera	771	
Hondarribiko, Orioko eta Getariako portuen zaintza eta segurtasuna	226	
Profesional independenteen beste zerbitzu batzuk	156	
Aseguru sariak	93	
Banku zerbitzuak eta antzekoak	11	
Publizitatea, propaganda eta harreman publikoak	152	
Hornidurak	201	
Beste zerbitzu batzuk	215	
Tributuak	14	
Merkataritzako eragiketengatik zuzkiduren galerak, narriad. eta bariozioa	22	
GUZTIRA	2.283	

A.8 KONTRATUEN ANALISIA

2020an prozedura ireki bitartez esleitutako kontratuak aztertu dira, guztira milioi 1en zenbatekoarekin:

KONTRATUA	Euroak milakotan				
	ESLEIPENA (*)		EXEK.(*) 2020	AKATSAK	
	PROZ.(**)	ZENBAT.		A	B
1. Plentziako barruko kirol-portua eraberritzeko proiektuaren obrak	Ireki S	864	728	A2,5	B1,2,3
2. Hondarribiko kirol-portuko pantalanetan zoladura sintetikoa hornitu eta instalatzea	Ireki S	157	-	A1,3,4	B3
GUZTIRA		1.021	728		

(*) Zenbatekoek ez dute BEZa barne hartzen.

(**) Ireki S: Ireki sinplifikatua.



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan		
AKATSAK	ESPEDIENTE KOP.	ZENBAT.
A IZAPIDETZEA ETA ESLEIPENA		
A1 Hornidura kontratua, prozedura ireki arruntaren bidez lizitatu behar zatekeena.....	1	157
A2 Baliatutako formula matematikoak puntuaz. ematen die lizit. prezioa berdintzen duten eskaintzei	1	864
A3 AKPPek ez dute kaudimena justifikatzeko moldea zehazten enpresa berriak direnean	1	157
A4 Balorazio-txosten teknikoak ez dago behar bezain arrazoitua	1	157
A5 Esleipen-ebazpenek ez dute hitzarmen kolektiboari buruzko informazioa jasotzen.....	1	864
B EGIKARITZA		
B1 Segurtasun- eta osasun-plana zuinketa egiaztatzeak akta egin ondoren onartzea	1	864
B2 Azken ziurtagiria harrera-akta egin aurretik onartzea	1	864
B3 Lanak jaso izanaren akta epez kanpo egitea.....	2	1.021

2020ko ekitaldian honako kontratazio hauek zuzenean gauzatu dira, dagozkion nahitaezko prozedurak izapidetu gabe

Euroak milakotan		
DESKRIBAPENA	HIRUG. KOP.	ZENBAT. (*)
Erregaien erosketa (1)	1	815
Aseguruak (1)	1	96
Lege aholkularitza (1)	1	58
Hornidura elektrikoa (1)	3	47
Telekomunikazioen zerbitzuak (2)	1	30
Garbiketa zerbitzua (2)	2	26
Lokalen alokairua (2)	1	17
GUZTIRA		1.089

(*) Ez du Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne hartzen.

(1) Ikus II.1 atala.

(2) Ikus III.3 atala.

2020an, zuzenean eskuratu dira antzekoak diren honako ondasun eta zerbitzu hauek, eta gomendagarria litzateke horien izapidetzea berrikustea:

Euroak milakotan		
DESKRIBAPENA	HIRUGARREN KOP.	ZENBAT. (*)
Portuetako konponketak eta materialen hornidura	1	41
Hornigailuak mantentzea eta konpontzea	1	30
Amarralekuak, buiak eta beste berriz. eta mantentzeko urpekaritza-unit.	1	28
Garbiketa produktuak	2	18
GUZTIRA		117

(*) Ez du Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne hartzen.



ABREVIATURAS

BOPV	Boletín Oficial del País Vasco.
CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
Decreto 59/2020	Decreto 59/2020, de 12 de mayo, por el que se adscriben a Euskadiko Kirol Portuak los medios necesarios para el desarrollo de sus funciones.
EKP	Euskadiko Kirol Portuak.
EKPSA	Euskadiko Kirol Portua, SA.
GV	Gobierno Vasco.
LCSP	Ley 9/2017, de 8 de noviembre, Ley de Contratos del Sector Público.
Ley 2/2018	Ley 2/2018, de 28 de junio, de Puertos y Transporte Marítimo del País Vasco.
PCAP	Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TRLPOHGPV	Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988 y en el Plan de trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha fiscalizado las Cuentas Anuales del ejercicio 2020 del Ente Público de Derecho Privado Euskadiko Kirol Portuak (en adelante EKP) que corresponde a la actividad de dos personas jurídicas, Euskadiko Kirol Portua, SA (en adelante EKPSA) y EKP.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, personal y adquisición de bienes y servicios.
- Contabilidad: sometimiento de la documentación financiera presentada a los principios contables que resultan de aplicación. Nuestro trabajo ha consistido en revisar el informe de auditoría llevado a cabo por una firma externa, realizando aquellas pruebas complementarias u otros procedimientos de auditoría que hemos considerado necesarios.

El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, las deficiencias detectadas se detallan en el epígrafe III de este Informe.

